

## 1. informazio-txartela

Androzentrismoa

Gizonak beti erdigunean kokatzeko joera historikoa da, eta emakumeen presentzia ikusezin bihurtu du.

Horrela, gizateria gizonezkoarekin nahasten du, eta emakumezkoak gizonezkoekiko bigarren mailan utzi eta ezkutatu egiten ditu.

## 4. informazio-txartela

Genero-arauak

Neska edo mutil jaiotzeagatik mezu eta arau ezberdinak jasotzen ditugu, gure jarrera eta izaeran eragingo dutenak. Genero-arauak modu sotilean eta askotan inkontzientean transmititzen dira, eta horregatik zaila izaten da horiei aurre egitea.

Emakumeen eta gizonen arteko harremanetan, genero-arauek botere-desoreka sustatzen dute, genero femeninoa menperatuz eta zapalduz.

## 7. informazio-txartela

Genero-rolak

Kultura batek sexuei ematen dien zeregin eta jardueren multzoa da. Genero-rolak pertsonen portaerak eta jokamoldeak baldintzatzen dituzte: gizon edo emakume izateak, besteak beste, janzkeran, sexualitatean, zaletasunetan, lan-arloan edota emozioak adierazteko moduan eragiten du.

## 2. informazio-txartela

Sexismoa

Pertsona batek egiten edo esaten duena ezberdin baloratzea da emakume edo gizon izateagatik. Oro har, gutxiago edo okerrago baloratzen den pertsona hori emakumea da. Emakumeei zein gizonei eragiten die, baina gizonen boterea eta emakumeen mendekotasuna indartzeko mekanismoa da. Sexismoa jarrera aktibo eta agerikoa da, emakumeenganako mespretxua eta gutxiespena adierazten duena. Emakumeak adingabekotzat jotzen ditu portaera horrek, eta, horrela, gutxiagotasun- eta mendekotasun-egoeran iraunarazten ditu.

## 5. informazio-txartela

Generoa

Kultura bakoitzean sexu bakoitzari lotutako ideia multzoa da, oro har, “femenino” eta “maskulino” kategorietan kokatzen dena. Historikoki, generoaren arabera antolatu izan dira emakumeen eta gizonen arteko harremanak. Espazioak banatu dira sexu bakoitzari bat egokituz (pribatua/publikoa), ardurak ere bai (zaintza eta etxeko lanak/ordaindutako lana), eta denbora modu ezberdinean antolatu da sexu bakoitzarentzat, eta emakumeei denbora propioa ukatu zaie.

## 8. informazio-txartela

Maskulinitate berriak

Maskulinitate-eredu hegemoniko bat dago, eta hori hartzen da gizontasunaren iruditzat, gizon izateko gainerako moduak baztertuta. Hain zuzen ere, maskulinitate berrien teoriak maskulinitate-eredu hegemoniko hori zalantzan jartzen dute, gizonezkoak izateagatik dauzkaten pribilegioei uko eginez eta bestelako gizontasun-eredu batzuk eraikitzen saiatuz.

## 3. informazio-txartela

Indarkeria sexista

Emakume eta gizonen desberdintasunen adierazpen bortitza da, desberdintasun horiek mantentzea ahalbidetzen duen tresna. Indarkeria hau era askotakoa izan daiteke: fisikoa, psikologikoa, sinbolikoa, ekonomikoa, e.a. Kasu askotan, normaltzat hartzen diren eta ia nabaritzen ez diren kontrol-mekanismoak ere indarkeria sexista dira. Indarkeria sexistak emakumeen autoestimua, autonomia eta askatasuna murrizten ditu. Indarkeria matxista eta genero-indarkeria kontzeptu honen baliokideak dira.

## 6. informazio-txartela

Genero-identitatea

Emakume, gizon edo ez bata eta ez bestea sentitzeari buruz dugun pertzepzioa da. Posible da sexu biologikoarekin bat ez etortzea. Gizarte guztiek genero-egitura bat daukate, generoarekin erlazioatutako estereotipo kultural eta arauak osatutakoa, eta horietan oinarrituz genero-identitatea eraikitzen da.

## 9. informazio-txartela

Queer teoria

Queer hitzak ingelesez “arraro”, “bitxi”, “ezohiko” esan nahi du. Jatorrian homosexuali irain egiteko erabiltzen zen, baina orain ezarritako generoak zalantzan jartzen dituztenek berreskuratu duten kontzeptua da. Horien arabera, identitate sexuala, genero-identitatea eta joera sexuala eraikuntza sozialak dira; beraz, generoa nahiz sexua aldagarriak dira.

## 10. informazio-txartela

### Transexualitatea

Gorputz fisikoaren arabera ezarritako generoarekin identifikatzen ez diren pertsonak bizi duten errealitatea da. Transexualak ez daude eroso edo ez daude ados gorputzean egokitu zaien sexu biologikoarekin edota genero-identitatearekin. Batzuek kirurgia eta tratamenduen bitartez gorputza aldatu nahi dute bere nortasunarekin egokitzeke, beste batzuek, berriz, duten gorputza onartzen dute, eta beste sexuaren genitalak izanda ere, gizon edo emakume bezala sentitzen eta bizitzen dira.

## 13. informazio-txartela

### Berdintasunerako politikak

Emakumeenganako bereizkeria-mota oro erotik desagerrarazteko eta berdintasuna lortzeko ezinbestekoa da botere publikoen konpromisoa. Ildo horretan, 90eko hamarkadatik aurrera erakundeak berdintasunerako politikak garatzen hasi ziren, eta helburua da emakumezkoek eta gizonezkoek bizitzaren eremu guztietan –ekonomikoan, sozialean, politikoa, erabaki-guneetan...– berdin parte hartzeko aukera bermatzea.

## 16. informazio-txartela

### Bateragarritasuna

Norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteaz hitz egitea, denbora antolatu, banatu eta erabiltzeko eraz hitz egitea da. Bateragarritasuna lortzea ez dago soilik norberaren esku, gizartearen, arlo publikoaren eta ekoizpen-sektorearen konpromisoa ere beharrezkoa da, enpresak, erakunde pribatuak eta abar.

## 11. informazio-txartela

### Feminismoa

Sexu bien berdintasunaren alde egiteko asmoz, testuinguru jakinetan emakumeek beren egoerari buruzko hausnarketetatik abiatuz eratu dituzten askapenerako teorien eta praktiken multzoa da. Mundua, botere-harremanak, gizarte-egiturak eta sexuen arteko harremanak ulertzeko modu desberdina da. Helburua da emakumeen zapalkuntza-egoera gainditu eta harreman parekideetan oinarritutako gizarte berria eraikitzea.

## 14. informazio-txartela

### Lan produktiboa

Baio ekonomikoa egokitzen zaion lana da. Produkzio-lan eta -funtzio gehienak gizonezkoek esleitu ohi izan zaizkie, eta, horrela, gizonak jo izan dira dirua etxera eramateko eta familia babesteko ohiko arduraduntzat; horregatik, historikoki emakumeek egin izan dituzten lanak ez dira aintzat hartu.

## 17. informazio-txartela

### Erantzukidetasuna

Berdintasuna lortzeko emakumeek eta gizonek eraldaketa sakonak egin behar dituzte, eta erantzukizunak, denborak eta zereginak banatu eta partekatu. Horrez gain, gizartearen eta ekoizpen-sektorearen konpromisoa ere beharrezkoa da, enpresak, erakunde pribatuak eta abar.

## 12. informazio-txartela

### Berdintasuna

Genero-rolak baztertu eta emakume eta gizonen berdintasuna sustatzea du helburua. Historian zehar, emakumeen diskriminazioa nabarmena izan da kultura askotan. XX. mendean zehar herrialde askotan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ahalegin handiak egin ziren (hezkuntzan, esaterako), baina, hala ere, gaur egun maila askotan emakumeek zapalduta jarraitzen dute.

## 15. informazio-txartela

### Lan erreproduktiboa

Bizitzarako ezinbestekoak izan arren, lan hauek ez zaie balio ekonomikorik egokitu, eta historikoki emakumeek egin izan dituzte dohainik. Lan-merkatutik kanpo kokatutako lana izatearen ondorioz, ez da sozialki batere baloratua, eta horretan lan egiten duten langileen (gehienak emakumeen eta etorkinen) baldintzak bereziki prekarioak izaten dira.

## 18. informazio-txartela

### Familia-ereduak

Bikote heterosexualak eta seme-alabek osatutako familia-ereduak nagusitasuna galdu du. Eredurik ohikoena izaten segi arren, bestelako ereduak hasi dira zabaltzen: guraso bakarrekoak, sexu bereko bi gurasoenak, seme-alabarik ez duten bikoteak eta, batez ere, bakarrik bizitzea erabakitzen duten pertsonak.

## 19. informazio-txartela

### Zaintzaren feminizazioa

Guztiok dugu zaindu eta zainduak izateko eskubidea eta beharra. Hala ere, oraindik ere zaintza-lanen ardura nagusia emakumezkoen gain geratzen da: pertsona nagusien, adin txikikoen zein familia-sostenguari zaintzaz emakumeak arduratzen dira; horrek askotan ez die uzten astirik beraien burua zaintzeko. Bizitzak irauteko funtsezkoak dira zaintzak, eta, beraz, beharrezkoa da zaintza-eredu berri, unibertsal eta duinen alde lan egitea.

## 22. informazio-txartela

### Pobreziaren feminizazioa

Oro har, hemen eta han, emakumeak dira bazterketa sozialean eta pobrezia-baldintzetan bizi direnak. Kontzeptu honek zalantzan jartzen ditu ohiko analisi-metodoak, horiek ez baitute aintzat hartzen emakumeek jasaten duten egiturazko bereizkeria-errealitatea.

## 25. informazio-txartela

### Maitasun erromantikoa

Maitasun heterosexual, bakar eta betierekoaren idealizazioa oinarri duten bikote-harremanak dira. Eredu honetan pertsona bakoitzaren espazio eta askatasun pertsonala ezabatzen da, bikoteari zentralismo osoa ematen zaiolako. Bikotearen barruan funtzio eta rol zehatz batzuk esleitzen zaizkie emakume eta gizonei; horrek, askotan, menpekotasun- edo kontrol-jarrerak dakartza.

## 20. informazio-txartela

### Emakumeen boteretzea

Emakume eta gizonen desberdintasun-egoeraren gaineko kontzientzia hartu (jabetu) eta emakume bezala gaitasunak landuta (ahaldunduta), boterea hartuz egoera hori aldatzeko eragiteko ahalmenean datza. Emakumeen boteretzea bi mailatakoa izan daiteke: indibiduala eta kolektiboa.

## 23. informazio-txartela

### Bereizkeria anizkoitza

Norberaren izaera identitate askoren gurutzaketaren ondorio da: generoa (emakume, gizon, trans...), langilea edo klase ertainekoa, jatorri etnikoa, dibertsitate funtzionala duena (edo ez), adina, herriko edo hirikoa eta abar. Ezaugarri horiek guztiak pertsona bakoitzaren bizitzan gorpuzten dira, eta bizipen jakin batzuk sortzen dituzte; aldi berean, gizartean ere posizio jakin bat ematen digute.

## 26. informazio-txartela

### Edertasun-ereduak

Telebistan, aldizkarietan edota pelikuletan gorputz-eredu batzuk soilik azaltzen dira: gorputz argalak, altuak, gazteak, ilerik gabekoak, gehienetan zuriak... Hain zuzen ere, egungo edertasun-ereduak ezaugarri horietan oinarritzen dira, ez dituzte gorputz osasuntsuak sustatzen, lortzen zailak diren gorputzak goraiatzeko dituzte. Gure autoestimurako, ordea, garrantzizkoa da gure gorputza maitatzea eta bere jabe garela sentitzea.

## 21. informazio-txartela

### Hezkidetzak

Neskak eta mutilak berdintasunean heztea da, sexismoari aktiboki aurre eginez. Hezkuntza-eredu hezkidetzailan, neskak eta mutilak batera aritzeaz gain, sexismoak sortzen dituen rol, espektatiba eta heziketa emozional ezberdinak gainditzeko estrategiak jartzen dira martxan. Soilik horrela izaten da posible norberaren banakotasun eta berezitasunaren arabera, era guztietako izaerak onartzea eta benetako berdintasunean heztea.

## 24. informazio-txartela

### Heteroaraua

Soilik heterosexualitatean oinarritutako bikote-harremanak hartzen ditu aintzat. Ondorioz, harreman ez-heterosexual guztiak arbuia eta “anormaltzat” edo “bestelakotzat” jotzen dira, eta jarrera homofobo, lesbofobo eta transfobo bide ematen zaie.

## 27. informazio-txartela

### Trabestismoa

Beste sexuari egozten zaion janzkera eta estetika erabiltzea da. Batez ere “emakumez” jantzitako gizonen jarrera izendatzeko erabiltzen da.